



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

## **GOGOBETETASUN AZTERLANA 2015 KUDEAKETAN HAUTEMANDAKO KALITATEA**

**URAREN ZIKLO INTEGRALAREN  
ETXEKO HONDAKINEN  
IBAI PARKEAREN**

**Emitzen sintesia**  
Etxebizitzen azterlana  
Negozioen eta enpresen  
azterlana

**2015eko azaroa**



**Mancomunidad**  
**Comarca de Pamplona**  
Iruñerriko  
**Mankomunitatea**

**Servicios de la**  
**Comarca de Pamplona s.a.**  
Iruñerriko  
**Zerbitzuak e.a.**

---

Gral. Chinchilla nº 7    Tel: 948 423 100  
31002    Fax: 948 423 230  
PAMPLONA-IRUÑA    C.I.F.: A 31 11844 1  
mcp@mcp.es    www.mcp.es

## **GOGOBETETASUN AZTERLANA, 2015**

URAREN ZIKLO INTEGRALAREN  
ETXEKO HONDAKINEN  
IBAI PARKEAREN

**KUDEAKETAN HAUTEMANDAKO KALITATEA**

**ETXEBIZITZEN AZTERLANA**  
**NEGOZIOEN ETA ENPRESEN AZTERLANA**

**EMAITZEN SINTESIA**  
**Kanpo Harremanetako Saila**  
**2015eko azaroa**



## AURKIBIDEA

<b>EMAITZEN SINTESIA</b>	<b>3</b>
<b>0. AZTERLANAREN EZAUGARRIAK</b>	<b>4</b>
<b>1. URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETAN HAUTEMANDAKO KALITATEA</b>	<b>5</b>
1.1. Hornitutako uraren kalitatea	5
1.2. Hornidura zerbitzuaren balorazioa	6
1.3. Uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko gogobetetasun globala	7
<b>2. HONDAKINEN KUDEAKETAN HAUTEMANDAKO KALITATEA</b>	<b>8</b>
2.1. Hondakinak bereizteko ohitura eta 5. edukiontziaren erabilera	8
2.2. Bilketak edukiontzietan/buzoietan	11
2.3. Edukiontzietako/Buzoietako bilketa hobetzeko jarduketa esparruak	18
2.4. Beste bilketa batzuk eta garbiguneak	22
2.5. Hondakinak tratatu eta birziklatzea	23
2.6. Hondakinaren zerbitzuarekiko gogobetetasun globala	24
<b>3. UR ETA HONDAKIN ZERBITZUEN PREZIOA</b>	<b>25</b>
<b>4. MANKOMUNITATEAREN INFORMAZIOA ETA IRUDIA</b>	<b>27</b>
<b>5. IRUÑERRIKO IBAI PARKEA</b>	<b>30</b>



# EMAITZEN SINTEZIA

## 0. AZTERLANAREN EZAUGARRIAK

---

Azterlan honen xedea da Iruñerriko Mankomunitatearen esparruko herritarrek Uraren Ziklo Integralaren, Hondakinen Bilketa eta Tratamenduaren, eta Ibai Parkearen zerbitzuak ematen direnean dagoen kalitateari buruz duten pertzepzioa biltzea.

**Uraren Ziklo Integralean**, uraren ezaugarri organoleptikoei eta hornidura eta saneamendu zerbitzuei buruzko pertzepzioa aztertu da.

**Etxeko Hondakinen Kudeaketan**, hondakinak bereiztean parte hartzea eta Iruñerrian ezarrita dauden bilketa mota desberdinen gaineko balorazioa aztertu da, bai eta behin bilduta hondakinek jasotzen duten tratamenduari eta lortzen ari garen birziklatze emaitzei buruzko iritzia ere.

**Ibai Parkeari** dagokion atalean, bertan maiz ibiltzen diren pertsonen ezaugarriak eta, haien erabilera esperientziaren arabera, parkearen alderdi desberdinak nola baloratzen dituzten aztertu da.

Era berean, zerbitzu horien **prezioari** buruzko iritzia eta **Mankomunitatearen funtzionamenduaren informazioari eta irudiari** dagozkion beste alderdi batzuk bildu dira.

**ETXEBIZITZEN AZTERLANA:** Mankomunitatearen barnean dauden udalerrietan bizi diren herritarren lagin adierazgarri bati egindako inkesta da, eta **haien iritzia jasotzen du zerbitzu horren erabilzaile gisa etxebizitzaren esparruan**.

880 elkarrizketa egin dira telefonoz. Uraren Ziklo Integralean, datuak hornidura eremuen arabera banakatu dira (Arteta, Eugi eta nahasia). Hondakinen zerbitzuan, bilketako hiru eremu bereizi dira: 5. edukiontzi gabea (arreta emandako herritarren %54), 5. edukiontzi duena (arreta emandako herritarren %43) eta bilketa pneumatikoa duena (%3). Ibai Parkean, emaitzak banakatu dira Iruñerriarenak edo Iruñearenak diren Parkeko eremuetara maiz joaten den kontuan hartuta.

**NEGOZIOEN ETA ENPRESEN AZTERLANA:** telefonoz egin den elkarrizketa bat da, SCPSAren Bezeroen Datu Basean dauden negozioen eta enpresen lagin adierazgarri bati. Bost erabilera jarduera bereizi dira, zerbitzu hauen kalitatea hautematean esanguratsuentzat jotzen diren bostak, hain zuzen:

- Ostalaritza (tabernak, jatetxeak).
- Jan-edanen saltokiak.
- Jan-edanena ez den erabilera jarduera duten beste saltoki batzuk.
- Bulegoak.
- Beste enpresa batzuk. Hiriguneetan edo herriguneetan dauden enpresak (kanpoan gelditu dira industrialdeetan edo merkataritza zentroetan dauden enpresak).

Zehazki, 650 elkarrizketa egin zaizkie negozioen eta enpresen arduradunei, eta **haien iritzia aztertu da, merkataritzaren eta enpresaren esparrutik**.

## 1. URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETAN HAUTEMANDAKO KALITATEA

### 1.1. HORNITUTAKO URAREN KALITATEA

**Iruñeko eta Iruñerriko herritar gehien-gehienek (%94) iturriko ura edaten dute eskuarki eta hornitutako uraren kalitate orokorraren gainean duten pertzepzioa oso handia da: etxebizitzetan inkestatutako pertsonen %87k eta saltokietan eta enpresetan inkestatutako enpresen portzentaje berberak uste dute edaten duten ura ona edo oso ona dela.**


Mankomunitateko uraren ezaugarri organoleptiko eta higieniko-sanitarioei buruzko azterlan zehatzagoan, zaporean, usainean, kolorean eta baldintza higieniko-sanitarioetan hautemandako kalitate handia nabarmentzen da, bai etxebizitzetan arloan, bai eta negozioen eta enpresen arloan ere, aztertutako alderdi guztietan balorazio uniformea lortuta.

Uraren kare mailari dagokion balorazioa, ordea, okerragoa da; izan ere, herritarren %20k uste baitute txarra edo oso txarra dela alderdi horretatik, eta %29k hala-holakoa dela. Urak duen kare mailak balorazio kaskarragoa du Artetatik egiten den hornidura eremuan: eremu horretan inkestatutako pertsonen %27k balorazio txarra eman diote alderdi horri, %30ek hala-holakoa eta %37k ona. Negozioen eta enpresen arloan, %34k balorazio ona eman diote uraren kare mailari, %31k hala-holakoa eta %21ek txarra edo oso txarra.

Zer balorazio ematen diozu uraren kalitate orokorrari? Zehatzago, nola baloratzen duzu hauei dagokienez? (%)

■ Oso ona/Ona      ■ Hala-holakoa  
■ Txarra/Oso txarra      ■ ED/EDE

BATEZ  
BESTEKOA  
Eskala  
(1 - 5)





## 1.2. HORNIDURA ZERBITZUAREN BALORAZIOA

**Hornidura zerbitzuari dagozkion alderdiek ere oso balorazio onak izan dituzte.** Etxebizitzetan inkestatutako pertsonen %95ek ontzat jotzen dute zerbitzuaren funtzionamendu orokorra eta %99k horniduraren jarraitutasuna, etenik gabea izatea. %70en ustez, ongi edo oso ongi egokitzen da herritarren premia eta eskarietara, %5ek uste dute hala-hola egokitzen dela eta laurden batek ez dakite edo ez diote galderari erantzun. Negozioen eta enpresen artean, balorazio horiek era berean dira aldekoak.

Etenaldia egin behar izanez gero aurretiaz abisatzeari eta matxuren aurrean ematen den erantzunari dagozkien alderdietan, aztertutakoetan, portzentaje handi batek ez ditu baloratu, horretarako irizpiderik ez duelako. Bi alderdi horiek baloratu dituztenek, berriz, ez dute erantzun kritikorik eman ia.


**Etxebizitzaren %17k eta enpresen eta negozioen %8k gogora ekarri dute inkesta** egin aurreko 6 hilabeteetan **ur horniduran etenaldiren bat izan dutela.** Etxebizitzaren %91k eta saltokien eta enpresen %88k uste dute aurretik eman zitzaieला abisua, nahiko denborarekin. Etxebizitzaren arloan soil-soilik %15ek eta negozioen eta enpresen arloan %19k egozten diote etenaldia zerbitzuan izandako matxura bati, eta gainerakoek bideko lanei edo etxebizitzaren batean izandako matxurei egozten diote.

Etxebizitzaren esparruan inkestatutako pertsonen, horniduran etenaldiren bat izan dutenek, ongi baloratu dute etenaldia izanez gero aurretiaz abisua emateari dagokion alderdia: %91k ongi baloratu dute, %7k hala-hola eta %1ek gaizki. Gorabehera hori izan duten negozioak eta enpresak kritikoagoak dira etenaldia izanez gero aurretiaz abisua emateari dagokion alderdia baloratzean: %86k ongi baloratu dute, %6k hala-hola eta %8k gaizki.

### Baloratu hornidura zerbitzuaren alderdi hauek (%)

■ Oso ongi/Ongi ■ Hala-hola  
■ Gaizki/Oso gaizki ■ ED/EDE

BATEZ  
BESTEKOA  
Eskala  
(1 - 5)



### 1.3. URAREN KALITATEAREKIKO ETA ZERBITZUAREKIKO GOGOBEETASUN GLOBALA


Alderdi guztiak beren osotasunean hartuta kontuan, **uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko gogobetetasun mailari 7,9 puntu** eman dizkiote, 0 eta 10 arteko eskala batean. Hornidura eremuen arabera ikusten diren diferentziak (Arteta, Eugi eta nahasketa) ez dira esanguratsuak estatistikako terminoei dagokienez. Era berean, etxebizitzetan inkestatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoen arabera gogobetetasun globalean ere ez da desberdintasunik ikusten.

**Negozioen eta enpresen artean, gogobetetasun globalari 7,7 puntu** eman dizkiote, 0 eta 10 artean, eta saltokien eta enpresen erabilera jardueraren arabera ikusten diren diferentziak ez dira esanguratsuak estatistikako terminoei dagokienez.

Segida historikoan, joera jarraitua ikusten da uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko gogobetetasun globalean etxebizitzetan esparruan inkestatutako herritarren artean: 2009az geroztik 7,9 eta 8,0 artean jaso du 10etik. Negozioen eta enpresen gogobetetasun globalean gorabeherak erregistratzen dira segidan, eta, hartara, ez da joera garbirik ikusten.

Gogobetetasun globalean 2013ko neurketarekiko ikusten diren diferentziek ez dute esangura estatistikorik ez esparru batean ez eta bestean ere.

Alderdi guztiak beren osotasunean hartuta, zein da uraren kalitatearekiko eta zerbitzuarekiko gogobetetasun maila?



## 2. HONDAKINEN KUDEAKETAN HAUTEMANDAKO KALITATEA

### 2.1. HONDAKINAK BEREIZTEKO OHITURA ETA 5. EDUKIONTZIAREN ERABILERA

Hondakinen bilketa zerbitzuan hautemandako kalitatea aztertu aurretik, galdetu da etxean, edo establezimenduan (negozioei eta enpresei egindako inkestan), hondakin mota desberdinak bereizten dituzten dagokien edukiontzia arabera.


Hondakinak bereiztean eta gaika biltzean parte hartzea, adierazitakoa, oso handia da, bai etxebizitzetan esparruan, bai negozioen eta enpresen esparruan ere. Hartara, adierazi dute etxebizitzetan %87k eta negozioen eta enpresen %88k beti bereizten dituztela hondakinak edukiontzia arabera.

Etxean, hondakinak bereizten dituzte...



OINARRIA: 880 elkarrizketa

Establezimenduan, hondakinak bereizten dituzte...



652 elkarrizketa


Nahiz eta emaitzetan eragina izan dezakeen nolabaiteko desiragarritasun sozialak, Mankomunitateak markatzen dituen ereduakiko ados erantzuteko nolabaiteko joerak edo sozialki ongi ikusten den horretarako joerak, etxeko hondakinak jatorrian bertan bereiztea ongi onartzen dela adierazten dute eta ia ez da diferentzia esanguratsurik ikusten kontuan hartutako aldagai soziodemografiko gehienetan (okupazioa, ikasketen maila, Iruñean edo Iruñerrian bizitzen daraman denbora, jatorrizko lekua –beste autonomia erkidego edo herrialde batzuk–, bizitzeko eremua edo etxebizitza mota, familiabakarra edo bloke batekoa).

Inkestatutako pertsonen adinaren arabera, ordea, diferentziak ikusten dira. 45 urtetik gora dituztenak dira neurri handiagoan hondakinak bereizten dituztenak etxean, %90etik gora beti bereizten dituzte. 18 eta 29 urte artean badituzte, aldiz, neurri txikiagoan bereizten dituzte: %77k beti bereizten dituzte. 30 eta 44 urte artekoen kasuan, %85ek beti bereizten dituzte.

Familia unitatea hartzen badugu kontuan, bereizteko portzentaje handi bat izanik ere, bost kide edo gehiago dituzten etxebizitzak dira gutxien bereizten dutenak –%78k beti bereizten dute– eta seme-alaba adingabeak dituzten etxebizitzak –%82k beti bereizten dute, %87ko batez bestekoaren aurrean–.

Hondakinak jatorrian bereiztean parte hartzearen indizea, adierazitakoa, handiagoa da 5. edukiontzia duten eremuan, %89k adierazi baitute hondakinak beti bereizten dituztela, 5. edukiontzia ez duten eremuan adierazi duten %85aren aurrean. Segida historikoan, 2007az geroztik %85etik gora dago indize hau.

Etxebizitzan / establezimenduan,  
hondakinak bereizten dituzte... (%)



5. edukiontzia duten eremuetan **GILTZA DUEN EDUKIONTZIRA GAI ORGANIKOAK BOTATZEARI** dagokionez, etxebizitzan esparruan, **erantzunak zati berdinetan bereizten dira**: etxebizitzan %48k adierazi dute janari hondarrak beti botatzen dituztela giltza duen edukiontzira eta %50ek adierazi dute ez dutela egiten. %1 egiten hasi ziren baina ez dute bereizten jarraitzen.

Etxean, janari hondarrak giltza duen edukiontzira botatzen dituzue?



OINARRIA: 402 elkar., 5. edukion. duten eremuak.

Hain zuzen, 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten etxebizitzak dira gutxien bereizten dutenak: etxebizitza horien %37k adierazi dute janari hondarrak bereizten dituztela dagokien edukiontzira botatzeko, %5ek batzuetan egiten dute eta %58k ez dituzte bereizten. Etxeko hondakinak bereiztean zailtasun handiagoak dituztela adierazi dutenak ere badira. Horrez gain, ikusten da jarraipena handiagoa dela etxebizitza familiabakarretan: %62k beti bereizten dituzte.

Gizabanakoen aldagaietan, nabarmentzen da 30 eta 44 urte artean dituzten inkestatutako pertsonen parte-hartze txikiagoa dutela (%40k bereizten dituzte beti), koherentzian seme-alaba adingabeak dituzten etxebizitzetan ikusitako parte-hartze txikiarekin; eta parte-hartzea handiagoa dela adinak aurrera egiten duen neurrian (beti bereizten dituzte janari hondarrak 45 eta 55 urte artean dituztenen %50ek eta 60 urtetik gora dituztenen %54k). Gainerako aldagai soziodemografikoetan, diferentziek ez dute esangura estatistikorik.

Janari hondarrak **BEREIZTEN EZ dituzten etxebizitzek** adierazten dute hori ez egiteko **arrazoi nagusia eskatzen duen ahalegina eta ardura dela** (%30) eta bai dena modu batera antolatuta dutela eta bereizketa berriak egitea kostatzen zaiela (%13). Bereizten ez dituzten etxebizitzek %22k adierazi dute ez dutela tokirik. %26k adierazi dute ez dutela egiten ez dakitelako nola eman izena eta %11k, esan dutenez, ez daukatelako edukiontzirik beren eremuan.


#### Zergatik ez dituzu botatzen janari hondarrak giltza duen edukiontzira? (%)



OINARRIA: 200 elkarrizketa. 5. edukiontzia duten eremuetan bizi dira eta EZ DITUZTE BEREIZTEN gai organikoak. Ez da zailtasun bakar bat ere iradoki, zenbait adieraz ditzakete.

**Negoioen eta enpresen** esparruan, 5. edukiontzia duten eremuan, gai organikoak sortzen dituzten establezimenduen %41ek adierazten dute giltza duen edukiontzira botatzen dituztela. %6 kudeatzaile batek biltzen ditu (batez ere harategietan) edo Elikagaien Bankuak.

#### Zein edukiontzitara botatzen dituzte gai organikoak?



OINARRIA: 111 elkarrizketa. Gai organikoak sortzen dituzte, 5. edukiontzia duten eremuan

Saltokiek eta enpresek gutxi zehaztu dituzte ez bereizteko dituzten arrazoiak, eta bai establezimenduan hondakinak bereizteko dituzten zailtasunak ere. Saltokien eta enpresen arduradunekin egindako azterlan kualitatiboan arabera, badakigu merkataritzaren eta enpresen arloan zailtasun horiek etxebizitzaren esparruan adierazitakoak baino askoz ere intentsitate handiagoarekin adierazten direla, eta bai inkestaren metodoarekin erakutsitakoa baino ere.

## 2.2. BILKETAK EDUKIONTZIETAN/BUZOIETAN

### GAI ORGANIKO ETA GAINERAKOETARAKO EDUKIONTZIAK/BUZOIAK, 5. EDUKIONTZIRIK EZ DUTEN EREMUETAN

Gai organiko eta gainerakoetarako edukiontzia kontuan hartu dira inkesta egiteko unean 5. edukiontzia ezarrita ez duten eremuetan.

**Etxebizitzan esparruan**, oso balorazio onak izan dituzte edukiontzien guneraino dagoen distantziak eta hondakinak botatzean beteta ez egoteak: %90ek baino gehiagok ongi edo oso ongi baloratu dituzte alderdi horiek. Edukiontzien garbitasunak, bota daitekeenaren gaineko informazioak eta botatzeko erraztasunak, ordea, balorazio kaskarragoak izan dituzte (azken alderdi horrek erantzun kritikoen %12 erregistratu ditu).


**Negozioetan eta enpresetan**, balorazio txarrena duen alderdia edukiontzien garbitasuna da: %73k balorazio ona eman diote garbitasunari, %12k hala-holakoa eta %11k txarra. 2013ko emaitzekin alderatuta, botatzeko unean beteta ez egotearen eta garbitasunaren alderdien balorazioak kaskartu egin dira.

Edukiontzi horiek Iruñeko Alde Zaharreko **bilketa pneumatikoko buzoiekin** alderatzen badira, buzoiek balorazio handiagoak dituzte, edukiontzien aldean, garbitasunari eta bota daitekeenaren informazioari dagokionez. Buzoietan, balorazio kaskarragoa dute buxadurek, eta negozioen eta enpresen artean, botatzeko erraztasunak. Distantziak oso balorazio ona du bi eremuetan.

#### Gai organiko eta gainerakoetarako edukiontzien balorazioa, 5. edukiontzia ez duten eremuetan (%)

■ Oso ona/Ona    ■ Hala-holakoa  
■ Txarra/Oso txarra    ■ ED/EDE

BATEZ  
BESTEKOA  
Eskala  
(1 - 5)



## GAINERAKOETARAKO EDUKIONTZIAK, 5. EDUKIONTZIA DUTEN EREMUETAN

Inkesta egiteko unean (maiatzeko azken astean eta ekaineko aurrenekoan), bosgarren edukiontzia hemen zegoen ezarrita: Barañainen (kokatu zen lehenengo herria); Zizur Nagusian, Zizur Txikian, Donibanen, Ermitagañan, Mendebaldean eta Etxabakoitzen (2014ko maiatzean eta ekainean ezarrira); eta Sanduzelain, Arrotxapean, Buztintxurin eta Artikan (inkesta egin aurreko asteetan ezarrira).

5. edukiontzia duten eremuan, **gainerakoen edukiontzirako** aztertutako alderdi guztietan oso balorazio handiak ikusten dira eta bilketa horri buruzko balorazio orokorrak erantzun positiboen %96a lortzen du etxebizitzetan inkestatutako pertsonen artean.


5. edukiontzia ez duten eremuan gai organiko eta gainerakoetarako edukiontzien gainean bildutako antzeko balioak erregistratzen dituzte edukiontzien gunerako distantzia dela-eta; 5. edukiontzia duten eremuan, hondakinak botatzean beteta ez egotearen eta zaraten alderdiek puntu gutxiago izan zituzten, ordea. Edukiontzien garbitasunena eta bota daitezkeen hondakinen gaineko informazioan balorazioak hobetu dira, bai etxebizitzetan esparruan, bai negozioen eta enpresen esparruan ere.

**Negozioetan eta enpresetan**, etxebizitzetan esparruan erregistratutakoen aldean, balorazioak kaskarragoak dira distantzian, botatzean beteta egotean eta garbitasunean. Bilketa honetako balorazio orokorra ona da inkestatutako negozioen eta enpresen %87ren ustez, hala-holakoa %2ren ustez eta txarra %6ren ustez.

### Gainerakoetarako edukiontzien balorazioa, 5. edukiontzia duten eremuetan (%)

■ Oso ona/Ona    ■ Hala-holakoa  
■ Txarra/Oso txarra    ■ ED/EDE

BATEZ  
BESTEKOA  
Eskala  
(1 - 5)



## ORGANIKOETARAKO EDUKIONTZIAK, 5. EDUKIONTZIA DUTEN EREMUETAN

5. edukiontzia duten eremuan elkarriketa egindako pertsoneri, **janari hondarrak bereizi eta giltza duen edukiontzira eramaten dituztela adierazi zutenei**, eskatu zitzaaien edukiontzioi hori baloratzeko, aztertzen ari garen alderdietan.


**Etxebizitzen esparruan**, oso balorazio ona dute, erantzun positiboen %90 baino gehiago lortuta, distantziak, beteta ez egoteak botatzean eta edukiontzi horietan bota daitekeenaren gaineko informazioak.

Erantzun kritikoen portzentaje handiagoa erregistratu da botatzeko erraztasunean: %79k ongi baloratu dute alderdi hori, %8k hala-hola eta beste %8 batek gaizki edo oso gaizki.

Gai organikoak sortzen dituzten **negozioek eta enpresek**, dagokien edukiontzira botatzen dituztela adierazi dutenek, etxebizitzaren esparruak baino balorazio kaskarragoa ematen diote distantziari eta botatzean beteta ez egoteari. Botatzeko erraztasunean ez da erantzun kritikorik jaso, gai organikoak bereizten ari diren saltokien %80k ongi baloratzen dute alderdi hori eta %14k hala-hola.

Bilketa honen balorazio orokorra oso ona da etxebizitzetan inkestatutako pertsonen artean: %93k uste dute ongi edo oso ongi funtzionatzen duela, %4k hala-hola eta %1ek gaizki edo oso gaizki. Negozioetan eta enpresetan, %80k ongi baloratzen dute, %5ek hala-hola eta %4k gaizki.

### Organikoetarako edukiontzien balorazioa, 5. edukiontzia duten eremuetan (%)






## ONTZIETARAKO EDUKIONTZIAK/BUZOIAK

**Etxebizitzan esparruan**, erantzun positiboen portzentaje handia eskuratu dute edukiontzira dagoen distantziak (%95), botatzean beteta ez egoteak (%89), garbitasunak (%83), biltzean egiten den zaratak (%84) eta bota daitekeenaren gaineko informazioak (%81). Ontziak edukiontzira botatzeko erraztasuna da balorazio kaskarra lortu duen alderdia: %72k ongi baloratu dute, %8k hala-hola eta %19k gaizki.

Emaitza horiek bilketako eremuen arabera erkatzen badira, 5. edukiontzia duten eremuan, 5. edukiontzirik ez duten eremuarekin alderatuta, balorazioak nabarmen handiagoak dira garbitasunean, botatzeko erraztasunean eta bota daitekeenaren gaineko informazioan. Beharbada, **komunikazio kanpainen eragina izango da, ziur asko, ondorioa izan baitute bota daitekeenaren gaineko informazioan eta edukiontzien ahoetan hautemandako zailtasunak murrizten lagundu baitute**. Ez da diferentzia esanguratsurik ikusi edukiontzietara dagoen distantzian, nahiz eta 5. edukiontziaekin gune batzuk kendu diren, biltzean egiten den zaratan ez eta botatzean beteta egotean ere.

**Negoioetan eta enpresetan**, distantziak, garbitasunak eta bota daitekeenaren gaineko informazioak ere oso balorazio positiboak izan dituzte; edukiontzira ontziak botatzeko erraztasuna eta botatzean beteta ez egotea dela-eta, ordea, kritikoagoak dira, 2013ko datuekiko nabarmen murriztu baitira balorazioak.

**Bilketa pneumatikoa duten eremuan**, balorazioa kaskarragoa da buzoira ontziak botatzean buxadurarik ez egotean (%75ek ongi baloratu dute, %19k hala-hola eta %3k gaizki) eta biltzean zarata egitean (%75ek ongi baloratu dute, %17k hala-hola eta %8k gaizki). Ontziak buzoira botatzeko erraztasunak, aldiz, balorazio hobea izan du.



## PAPER-KARTOIRAKO EDUKIONTZIAK/BUZOIAK


Erantzun positiboen portzentaje handia eskuratu dute edukiontzira dagoen distantziak (%95), garbitasunak (%86), bota daitekeenaren gaineko informazioak (%86) eta zarata egiteak biltzean (%84).

Balorazio kaskarrena izan duen alderdia, bai etxebizitzan esparruan, bai eta negozioen eta enpresen esparruan ere, edukiontzira papera eta kartoia botatzeko erraztasuna da: etxebizitzetan erantzun kritikoa %22 izan dira, eta negozioetan, %16.

2013ko datuen aldean, **nabarmen kaskartu da botatzean beteta ez egoteari dagokion balorazioa**, bereziki negozioetan eta enpresetan; izan ere, alderdi hori ongi baloratu zutenak %80 izan ziren 2013an, eta 2015ean, aldiz, %67.

**Bilketa eremu desberdinetan** jasotako erantzunak erkatzen badira, ontzietarako edukiontzien gainean erregistratutako antzeko emaitzak ikus daitezke. 5. edukiontzia duten eremuetan, 5. edukiontzirik ez duten eremuen aldean, balorazioak nabarmen handiagoak dira garbitasunean, papera botatzeko erraztasunean eta bota daitekeenaren gaineko informazioan. Edukiontzira dagoen distantzian, zarata egitean biltzean, botatzean beteta egotean ez dago diferentziarik.

**Bilketa pneumatikoa duten eremuan**, etxebizitzetan inkestatutako pertsonen balorazio okerragoa eman diote buzoira papera botatzean buxadurak ez egoteari (%61ek ongi baloratu dute, %29k hela-hola eta %8k gaizki) eta biltzean zarata egiteari (%75ek ongi baloratu dute, %17k hala-hola eta %8k gaizki). Negozioek eta enpresek, ordea, balorazio hobea ematen diote buzoira papera botatzeko erraztasunari eta botatzean buxadurak ez egoteari, ziur asko, saltokien zati garrantzitsu batek kartoira dagoen atez ateko bilketan parte hartzen duelako.




## BEIRARAKO EDUKIONTZIAK

Bilketa honek balorazio handiak lortu ditu edukiontzira dagoen distantzian, beira botatzeko erraztasunean, botatzean beteta ez egotean eta bota daitekeenaren gaineko informazioan.

Iglu formako edukiontzietatik biltzean egiten den zarata etxebizitzaren esparruen okerren baloratzen den alderdia da eta Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunek balorazio kaskarra ematen diote: eremu horretan, %59k ongi baloratzen dute alderdi hori, %31k hala-hola eta %10k gaizki.

**Ostalaritzako negozioetan**, Alde Zaharreko establezimenduen portzentaje handi batek ez ditu baloratu edukiontzi hauen alderdi desberdinak, beirarako atez ateko bilketan parte hartzen baitute.

Ez da diferentzia esanguratsurik ikusten bilketa honen gaineko balorazio orokorrean, 5. edukiontzia duten eta ez duten eremuen artean.



## ESTETIKA ETA KALE-PLAZETAN TOKIA HARTZEA


Edukiontzia hiriko paisaian integratzeari (estetika) eta kale-plazetan tokia hartzeari dagozkion alderdiak batera baloratzen dira edukiontzi mota guztietarako, edo buzoietarako, bilketa pneumatikoa bada.

**Edukiontziak dituzten eremuetan**, aztertutako guztien artean balorazio kaskarrenak jasotzen dituzten alderdiak dira: %59k ongi baloratzen dute edukiontzien estetika, %30ek hala-hola eta %9k gaizki. Kale-plazetan tokia hartzeari dagokionez, %65ek ongi baloratzen dute, %23k hala-hola eta %11k gaizki.

5. edukiontzia duten eremuan, nahiz eta edukiontzi bat gehiago kokatu den, alderdi horiek baloratzean ez da diferentziarik ikusten 5. edukiontzirik ez duten eremuarekiko.

**Bilketa pneumatikoa duten eremuarekiko**, ordea, aldeak ikusten dira: alderdi hauek oso balorazio ona lortzen dute buzoietan, bereziki, etxebizitzaren esparruan: %88k ongi edo oso ongi baloratzen dute estetika, eta %93k, kale-plazetan tokia hartzea.

**Negozioek eta enpresek** ere hobeki baloratzen dute estetika eta buzoiek tokia hartzea, edukiontzien aldean, baina ez da etxebizitzetan bezain nabarmena aldea: %19k hala-hola baloratzen dituzte bi alderdi horiek eta %4k gaizki edo oso gaizki baloratzen dituzte.




### 2.3. EDUKIONTZIETAKO/BUZOIETAKO BILKETA HOBETZEKO JARDUKETA ESPARRUAK

Bilketa bakoitzean aztertutako alderdiek jaso dituzten balorazioak konbinatuta, 1 eta 5 arteko eskala batean adierazitakoak, zerbitzuaren erabiltzaileek ezaugarri horietako bakoitzari ematen dioten garrantziarekin, bilketa zerbitzua hobetzeko jarduketa esparruak ezarri dira etxebizitzaren arlorako. 2015ean, esparru horiek modu honetan zehaztuta gelditu dira:




**ZAINZA ESPARRU** bat berezi da batez besteko balorazioa 3,9koa lortu duten ezaugarrietarako. Nahiz eta batez bestekoaren behetik dauden zertxobait (4,0), balorazio positiboen %80 baino gehiago eskuratu dituzte, eta, beraz, lehentasuneko hobekuntza esparrutik atera dira zaintza esparru batera.



Negozioen eta enpresen ikuspegitik, esparru horiek koadrante hauetan zehaztuta gelditu dira:



**ZAINZA ESPARRU** bat berezi da batez besteko balorazioa 3,9koa lortu duten ezaugarrietarako. Negozio eta enpresetan, aztertutako alderdi guztien batez besteko baloraziotik gertu daude (3,9) eta balorazio positiboen %80 baino gehiago eskuratu dituzte.






## 2.4. BESTE BILKETA BATZUK ETA GARBIGUNEAK

Etxebizitzen esparruan inkestatutako pertsonen %88k ezagutzen dute Mankomunitateak Emausko Trapuketariekin kontratatuta duen **tamaina handiko gauzen bilketa**, eta bilketa hori ezagutzen duten pertsonen %40k eskatu dute zerbitzu hori azken bi urteetan. Bilketa horren berri duten pertsonen %73k uste dute ongi edo oso ongi funtzionatzen dutela, %9k hala-hola eta %4k gaizki.


Etxebizitzan inkestatutako pertsonen %91k ezagutzen dute **garbiguneetakoren bat**, edo finkoak edo mugikorrak. Ezagunena, hain zuzen, kamioi mugikorra da, herritarren hiru laurdenek ezagutzen baitute. Garbiguneak ezagutzen dituzten pertsonen artean, ia erdiek (%45) eraman dituzte hondakin bereziak kamioi mugikorrera.

Garbiguneak ezagutzen dituzte (%)



OINARRIA: 880 elkarrizketa. Lagin osoa

Hondakinak eraman dituzte garbiguneetara (%)



OINARRIA: garbiguneak ezagutzen dituzte

Garbiguneen balorazioan aldeko erantzunak progresiboki handitu izana nabarmendu behar da: 2015ean, %86k balorazio ona eman diote haien funtzionamenduari, %5ek hala-holakoa eta %2k txarra; 2007an, ordea, balorazio positiboaren portzentajea %72koa zen.

**Negozioetan eta enpresetan, Iruñeko Alde Zaharrear kartoia eta beira biltzeko dagoen atez ateko bilketa** aztertu da, gainera. Iruñeko Alde Zaharrear kartoia sortzen duten saltokien %51k kartoia ateratzen dute Mankomunitateak kontratatuta duen bilketa horretara. %94k ongi baloratzen dute bilketa hau eta %4k hala-hola.

Iruñeko Alde Zaharrear inkestatutako ostalaritzako establezimenduen %71k beira ateratzen dute atez ateko bilketan jasotzeko. %94k ongi baloratzen dute bilketa hau eta %4k hala-hola.

Inkestatutako saltokien eta enpresen %29k Emausko Trapuketariei deitu diete **tamaina handiko gauzak biltzeko**, %79k balorazio ona ematen diote jasotako zerbitzuari, %12k hala-holakoa eta %6k txarra.



## 2.5. HONDAKINAK TRATATU ETA BIRZIKLATZEA

Behin bilduta hondakinei egiten zaien tratamendua dela-eta, bai etxebizitzan esparruan eta bai negozioen eta enpresen esparruan ere, nabarmendu behar da ez dakiten edo galdera honi erantzun ez dioten inkestatutako pertsonen portzentaje handia: ia heren bat.

Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan lortzen ari garen birziklatze emaitzei buruz duten iritziaz zehazki galdetuta, etxebizitzan esparruan inkestatutako pertsonen %59k uste dute emaitza horien onak edo oso onak direla, %8k hala-holakoak eta %1ek txarrak edo oso txarrak. %32k ez dakite nola baloratu birziklatzearen emaitzak.

Portzentaje horiek negozioetan eta enpresetan lortutakoen antzekoak dira.

Zure ustez, Iruñean eta Iruñerrian **birziklatzearen gainean dauden emaitzak** dira...



## 2.6. HONDAKINEN ZERBITZUAREKIKO GOGOBEKETASUN GLOBALA

Alderdi guztiak beren osotasunean hartuta kontuan, **hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuarekiko gogobetetasun mailari 7,7 puntu eman dizkiote 10etik etxebizitzaren esparruan.**


Diferentzia esanguratsuak ikusten dira bilketako eremuen arabera. Hartara, **5. edukiontzia duten eremuan zerbitzuarekiko gogobetetasun globala 7,8koa da; 5. edukiontzirik ez duten eremuan, ordea, 7,5koa da.** Bilketa pneumatikoa duten eremuan 7,7 puntu eman dizkiote.

**Negozioen eta enpresen** esparruan, hondakinen **zerbitzuarekiko gogobetetasun globalari 7,1 puntu eman dizkiote 10etik.**

Alde esanguratsuak ikusten dira zerbitzuarekiko gogobetetasun globalean negozioaren erabilera jardueraren arabera: jan-edanaren saltokiek gogobetetasun maila txikiagoa adierazi dute (gogobetetasun globalari 6,5 puntu emanda); ostalaritzako establezimenduek 6,9 puntu eman dizkiote eta beste enpresa batzuek ere 6,9; jan-edanaren erabilera jarduera ez den bat duten saltokiek 7,1 puntu eman dizkiote gogobetetasunari; eta bulegoek 7,3.

Negozioetan eta enpresetan ere ikusten dira diferentziak bilketako eremuaren arabera, baina etxebizitzetan ikusitako kontrako zentzuan. Hartara, **5. edukiontzia duten eremuan zerbitzuarekiko gogobetetasun globalari 7,0 puntu eman dizkiote eta 5. edukiontzirik ez dutenetan 7,2 puntu.** Diferentzia horrek ez du esangura estatistikorik; dena den, baliteke gogobetetasun txiki horrek erakustea negozioei eta enpresei hondakinak bereizteko arau berriak jarraitzeak dakarkien ahalegina.

Alderdi guztiak kontuan hartuta, zein da zure **gogobetetasun maila** hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuarekiko?




### 3. UR ETA HONDAKIN ZERBITZUEN PREZIOA

**Etxebizitzan esparruan**, inkestatutako pertsonen %46k uste dute ur zerbitzuak prezio normala edo merkea duela, eta %38k uste dute garestia dela. %17k ez dakite edo ez dute iritzirik eman zerbitzu honen prezioaren gainean.

Hondakinen prezioaren gaineko pertzepzioa antzekoa da: %45en ustez hondakinak bildu eta tratatzeko prezioa normala edo merkea da eta %36k, aldiz, garestia dela uste dute. %19k ez dakite nola baloratu zerbitzu honen prezioa.

Zerbitzu horien prezioa garesti izatearen pertzepzioa emakumeek dute (%44k uste dute garestiak direla), inkestatutako pertsonen artean 45 urtetik gora dituztenek (%43k uste dute garestiak direla) eta lehen mailako ikasketak dituztenek (%50ek uste dute garestiak direla, erdi mailako ikasketak dituztenen %37aren eta goi mailako ikasketak dituztenen %30aren aurrean).

Ez da alde esanguratsurik ikusten zerbitzu hauen prezioaren balorazioan bizitzeko eremuaren, bilketa eremuaren, beti Iruñean edo Iruñerrian bizi izan den, jatorrizko tokiaren edo etxebizitza motaren arabera. Etxearen tamainaren eta etxearen osakeraren arabera ikusten diren aldeek ere ez dute esangura estatistikorik.



Uraren zerbitzuaren prezioari buruzko pertzepzioa antzekoa da **negozioetan eta enpresetan**. Hondakinen zerbitzuaren prezioari dagokionez, garestia delako pertzepzioa handiagoa da: inkestatutako negozioen eta enpresen %51k uste dute hondakinen zerbitzua garestia dela.


Uraren zerbitzuaren prezioan, establezimendu kritikoenak ostalaritzakoak dira (%51k uste dute zerbitzua garestia dela) eta bai jan-edanaren establezimenduak ere (%47k uste dute garestia dela), inkestatutako establezimendu guztietan erregistratutako %40ko batez bestekoaren aurrean.

Hondakinen zerbitzuaren prezioa dela-eta, bereziki kritikoak dira ostalaritzako establezimenduak eta saltokiak, direla jan-edanetakoak direla jan-edanetako ez den beste erabilera jarduera batekoak. Izan ere, negozio horien %58 inguruk uste dute hondakinen zerbitzua garestia dela.

Uraren zerbitzuaren prezioaren pertzepzioak duen segida historikoan, ikusten da joera jarraitua izan dela 2011. urtea arte etxebizitzetan esparruan eta 2009. urtea arte negozioen eta enpresen esparruan. Handik aurrera, zerbitzu honen prezio garestiaren pertzepzioa edo balorazioa erregistratzen da, 2011n eta 2013an. 2015ean, ordea, etxebizitzetan esparruan, joera hori amaitu da, zerbitzuaren prezioa garestia dela uste duten erabiltzaileen portzentajea murriztuta.

Zer balorazio ematen diozu **uraren zerbitzuari?** (%)


- Ez daki
- Merkea da
- Normala da
- Garestia da



Hondakinen zerbitzuaren prezioaren bilakaeran eredu berbera ikusten da: garestia delako pertzepzio handiagoa 2011n eta 2013an etxebizitzetan eta 2009tik aurrera negozioetan eta enpresetan; eta 2015ean goranzko joera hori amaitzea, bai etxebizitzetan esparruan bai eta negozioen eta enpresen esparruan, nabarmen murriztuta zerbitzua garestia dela uste dutenen kopurua.

Zer balorazio ematen diozu **hondakinen zerbitzuari?** (%)

- Ez daki
- Merkea da
- Normala da
- Garestia da




#### 4. MANKOMUNITATEAREN INFORMAZIOA ETA IRUDIA

**Etxebizitzen esparruan** inkestatutako pertsonen %36k gogoan dute Iruñerriko Mankomunitatearen informazio edo komunikazioaren bat jaso edo ikusi dutela azken urtean. %9k adierazi dute urarekin lotutako informazioa jaso edo ikusi dutela; %27k hondakinekin lotutakoa; %12k hiriko garraioarekin lotutakoa; eta %1ek taxiekin lotutakoa. Portzentaje horiek 2013koen antzekoak dira.

Iruñerriko Mankomunitateaz jasotzen duten informazioaren gainean balorazio ona ematen dute inkestatutakoen %57k, hala-holakoa %16k eta txarra edo oso txarra %5ek. %22k adierazi dute ez dutela informaziorik ikusi edo jaso edo ez dute erantzun.

**Negozioen eta enpresen kasuan**, %35ek gogoan dute Iruñerriko Mankomunitatearen informazio edo komunikazioaren bat jaso edo ikusi dutela azken urtean. Portzentaje hori 2013an erregistratutakoa baino nabarmen handiagoa da, orduan %20 baino ez baitziren Mankomunitatearen informazioa jaso zutela gogoan zutenak. %11k urarekin lotutako informazioa jaso edo ikusi dute; %30ek hondakinekin lotutakoa; eta %8k hiriko garraioarekin lotutakoa.


Mankomunitateaz jasotzen duten informazioaren gaineko balorazio ona ematen dute inkestatutako negozioen eta enpresen %55ek, hala-holakoa %18k eta txarra %4k.



**GAI ORGANIKOAK BILTZEKO 5. EDUKIONTZIA DUTEN EREMUETAN**, berriaz galdetu zen ezarri zen hilabeteetan edukiontzi berri horri buruzko informaziorik ikusi edo jaso zutela gogoan zuten. **Nabarmendu behar da 5. edukiontziari buruzko informazioa jaso izana gogoan dutenen kopuru handia; izan ere, etxebizitzen esparruan inkestatutako pertsonen %87k baitute gogoan informazio hori ikusi edo jaso izana.**

5. edukiontzari zabalkundea ematen gehien lagundu duen bitartekoa etxeetarako bidalketa izan da: informazio hori ikusi zutenen ia hiru laurdenek gogoan dute postontzian jasotako gutunarengatik edo eskupaperarengatik.

#### Gogoan duzu informazio hori jaso duzun hauetakoren baten bidez...? Iradokia bitartekoz bitarteko (%)




OINARRIA: 351 elkarrizketa. 5. edukiontzia duten eremuak eta kanpaina ikusi dute

Negozioen eta enpresen artean, **%63k gogoan dute gai organikoetarako 5. edukiontzia buruzko informazioa ikusi edo jaso izana**. Ostalaritzako negozioen %63k, jan-edanaren saltokien %59k eta jan-edanetakoa ez den erabilera jardura duten beste saltoki batzuen %71k gogoan dute 5. edukiontzia buruzko informazioa ikusi edo jaso izana.

Informazio hori ikusi zutenen artean, %58k gogoan dute Mankomunitatearen gutuna edo eskupapera jaso zutela eta %54k Mankomunitateko langileen bisitak jaso zituzten. Erabilitako gainerako bitartekoek ia ez dute nabarmentasunik eremu honetan.

**5. edukiontzia buruz jasotako informazioaren balorazioa oso ona** da bai etxebizitzetan esparruan eta bai negozioen eta enpresen esparruan ere: **inkestaturako pertsonen %89k, informazio hori ikusi dutenek, ontzat eman dute**.

#### Oro har, nola baloratzen duzu giltza duen edukiontzian gai organikoak biltzeari buruz jaso duzun informazioa? (%)




OINARRIA: 351 elkarrizketa, etxebizitzetan; 209, negozio eta enpresetan. Kanpaina ikusi dute

**IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN IRUDIA** dela-eta, etxebizitzaren esparruan inkestatutako pertsonen %79k irudi ona dute Mankomunitateaz, %19k ez ona eta ez txarra, eta %1ek txarra. 5. edukiontzia duten eremuetan Mankomunitateaz duten irudia hobetu egiten da: %83k irudi ona dute, %15ek neutroa eta %1ek txarra. 5. edukiontzirik ez duten eremuetan, %75ek irudi ona dute, %22k neutroa eta %2k txarra.


Oro har, Mankomunitatearen funtzionamenduaz duzun **irudia** da...?

Etxebizitzak (%)



OINARRIA: 880 elkarrizketa

Negozioak/Enpresak (%)




OINARRIA: 652 elkarrizketa

**Negozioetan eta enpresetan**, %73k irudi ona dute, %21ek ez ona eta ez txarra, eta %3k txarra. Kasu honetan ere, 5. edukiontzia duten eremuetan hobetu egiten da: %76k irudi ona dute, 5. edukiontzirik ez duten eremuko %68aren aldean.

Segida historikoan, joera jarraitua ikusten da azken neurketetan.

Oro har, Mankomunitatearen funtzionamenduaz duzun **irudia** da...? (%)





## 5. IRUÑERRIKO IBAI PARKEA


2015ean, Iruñeko eta Iruñerriko herritarren %84k ezagutzen dute edo ezaguna egiten zaie Ibai Parkea eta %59 izan dira beran: %27 maiz joaten dira (astero edo ia astero), %12 urtean zenbaitetan joaten dira eta %20 noizbait joan dira.

Ezagutzen duzu edo ezaguna egiten zaizu Iruñerriko **Ibai Parkea**? Arga ibaian zehar dagoen parkea da (%)




OINARRIA: 880 elkarrizketa. Lagin osoa

**Erabiltzen dituzu Ibai Parkeko** ibilbideak eta jolas eremuak? (%)



Azken neurketekin alderatuta, Parkera sarritan joaten diren herritarren portzentajea berdintsua da, eta gutxitan joaten direnena txikiagoa da. Inkestatutakoen artean, inoiz joan ez direnen eta Parkearen berri ez dutenen portzentajeak handitu egin dira, ordea.

**Erabiltzen dituzu Ibai Parkeko** ibilbideak eta jolas eremuak? (%)



**Ibai Parkearen ohiko erabiltzailearen profil nagusia** hau da: gizona da (gizonen %33 sarritan joaten dira eta emakumeen %23), 30 eta 65 urte artean ditu (ia heren bat sarritan joaten dira), landuna da (landunen %33 maiz joaten dira), eta bikotekidearekin (%32) edo neska-mutiko txikiekin bizi da (%30 sarritan joaten dira).


Hartara, nabarmendu behar da **gutxiago ezagutzen eta erabiltzen dutela** Ibai Parkea 18 eta 29 urte arteko gazteek (heren batek ez du ezagutzen Parkea) eta, bereziki, ikasleak badira (%34k ez dute ezagutzen), eta Iruñean edo Iruñerrian bizitzen 10 urte baino gutxiago daramaten inkestatuek, bereziki beste herrialde batzuetakoak badira (%36k ez dute Parkea ezagutzen).

Ibai Parketik gertu dauden tokietan bizi diren herritarrek neurri handiagoan erabiltzen dute, bereziki, Txantrean, Arrotxapean, Sanduzelain, Buztintxurin eta Mendillorri bizi direnek. Haietan inkestatutakoen erdiak urtean zenbaitetan edo sarritan joaten dira Parkera. Ibai Parkearen eremuan sartuta dauden eskualdeko udalerrietan, inkestatutakoen %46 urtean zenbaitetan edo sarritan joaten dira.

**Ibai Parkea erabiltzeko ohiturei dagokienez**, gehien-gehienak (%80) paseatzera joaten dira Parkera, %22 bizikletaz ibiltzera, %20 korrika ibili edo kirola egitera, eta %14 familiarekin edo neska-mutikoekin ibiltzera. Parkeko erabiltzaileen %25 asteburuetan joaten dira, %21 asteaz joaten dira, eta %55 era berean asteaz eta asteburuetan.

Inkestatutako eta Ibai Parkera joaten diren pertsonen %60 batez ere Iruñeko zati-tara joaten dira maiz eta %40 Iruñerriko zati-tara joaten dira.

#### Gehienetan joaten zaren zatia dago... (%)



ONARRIA: 521 elkarrizketa. Ibai Parkera joaten dira (314 Iruñeko zati-tara joaten dira, 207 Iruñerriko zati-tara)

Oro har, eta dena hartuta aintzat, **Iruñerriko zati-tan ibiltzen diren parkeko erabiltzaileek 8,0 puntu ematen dizkiote beren gogobetetasunari 10etik.**

Iruñerriko zati-tan, balorazio onena duten alderdiak Parkera sartzeko erraztasuna (8,3) eta garbitasuna eta mantentzea (7,8) dira. Balorazio kaskarra jasotzen dutenak, aldiz, segurtasuna (7,1) eta Parkearen gaineko informazio orokorra dira (jarduerak, ibilbideak, nola joan...) (7,2).

**Jarri 0 eta 10 arteko balorazioa** sarrien joaten zaren zatiko edo eremuko alderdi hauei:

	Iruñeko zati-tara joaten da	Iruñerriko zati-tara joaten da	Parkeko erabiltzaileak, guztira
Parkera sartzeko erraztasuna, erraza da iristea	8,1	<b>8,3</b>	8,2
Parkearen garbitasuna eta mantentzea	7,6	<b>7,8</b>	7,7
Altzariak eta hornidurak egotea (bankuak, paperontziak, iturriak, komunak, askaltegiak, haurrentzako parkeak...)	7,4	<b>7,4</b>	7,4
Altzarien eta horniduren kontserbatze egoera	7,4	<b>7,5</b>	7,4
Ibilbideen, eremuen eta zerbitzuen seinaleak	7,3	<b>7,6</b>	7,4
Segurtasuna (toki segurua izatea paseatzeko, egoteko...)	7,2	<b>7,1</b>	7,2
Jarduera desberdinak egiteko Parkeak eskaintzen dituen aukerak	7,6	<b>7,5</b>	7,5
Parkeari buruzko informazio orokorra (jarduerak, ibilbideak, nola joan...)	7,1	<b>7,2</b>	7,1
<b>Oro har eta dena kontuan hartuta, Ibai Parkeko erabiltzaile gisa zein da zure gogobetetasun maila?</b>	<b>7,7</b>	<b>8,0</b>	<b>7,8</b>

Segida historikoan, **2015ean jasotako gogobetetasun maila handia** nabarmendu behar da, Iruñerriko eremu eta zati-tara joaten diren pertsonen artean.

Zein da zure **gogobetetasun maila** Ibai Parkeko ohiko edo aldian behingo erabiltzaile moduan?

■ Iruñeko zati-tara joaten da  
■ Iruñerriko zati-tara joaten da

